



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 2a

29. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arruntan eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Foru Lege proposamena, lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (12. or.).

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (12. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

—Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

—1/2020 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko otsailaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea,  
toki ogasunek transferentzia arrunten  
eta beste laguntza batzuen  
kontzeptuetan Nafarroako tributue-  
tan duten parte-hartzearen funtsaren  
zenbatekoa eta banaketa ezartzen  
dituen 2020. urterako**

*ZIOEN AZALPENA*

Espainiako Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adinako baliabideak izan behar dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko, eta, funtsean, beren tributuez eta Estatuaren eta autonomia erkidegoen parte hartuz hornituko dira.

Nafarroak eskumena du toki ogasunei dagokien arloa arautzeko, Nafarroako Foru Eraenta Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluen arabera.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan

ezartzen duenez, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta beren esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubideari dagokion gaia baita.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. artikuluan ezartzen da ezen toki ogasunak hornituko direla, beste baliabide batzuen artean, beren tributuez eta Foru Komunitatearen eta Estatuaren parte-hartzeaz.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan, berriz, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak emandako testuan, ezartzen da Nafarroako udalerriek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga-sarreretan parte hartuko dutela, sarrera guztien portzentaje finko bat hartuz urtero.

Portzentaje hori Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen foru legerian ezarriko da, eta, behin Nafarroako Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa kenduta, kalkulatu da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean une bakoitzean indarra duen eskumen-banaketa arabera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.

Xedapen horrek ezartzen du, besteak beste, 2019ko abenduaren 31 baino lehen Nafarroako Gobernuak finantzaketa proposamen bat igorriko duela Nafarroako Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gaur egun jasotzen diren dirulaguntza finalisten ordeztu toki ogasunei buruz-

ko Foru Legearen 123. artikuluko 2. apartatuko a) letran aurreikusitako finantzaketa moduluak progresiboki ezartzeko.

Toki entitateei kalte ez egiteko, eta 2020an udal zerbitzu publikoen finantzaketaren jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, beharrezkoa da egungo ereduari jarraipena emanen dion foru lege bat onestea, abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legean finkatutako printzipioak eta irizpideak mantenduko dituen, finantzaketa sistema berria garatzea ahalbidetuko duten arau aldaketak gauzatu arte; izan ere, parte-hartzearen portzentajea eta funtsaren banaketa zehazteko, behar-beharrezkoa da lege garapena, oraindik egin gabe dagoena.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, zein den toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbateko osoa.

Aurreikusirik dago toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa 2020ko ekitaldian aurrekoan baino % 3,08 handiagoa izanen dela, hau da, Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko prezioen indizeak (KPIa) 2018ko ekainetik 2019ko ekainera izandako bilakaeraren portzentajea gehi bi ehuneko-puntu.

Horrez gain, bere horretan mantentzen da Nafarroako udalek jasaten duten montepioaren defizita arintzeko ekarpena, 6.400.000 euroko zenbatekoa egiten duena, % 4,92ko igoera egin ondoren.

Proposatutako banaketa formulak berme sistema bat ezartzen du; horren bidez, udal eta kontzeju guztiek gutxieneko zenbateko bat jasoko dute, 2019ko kopurua adinakoa, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta beste ehuneko-puntu gehigarri bat. Formula horrek kopuru teoriko handiagoa esleitzen duenean, erdiesterik ez dagoena, zati proportzionala aitortuko da, aurrekontuko muga osatu artekoa.

Iruñeko Udalari "Hiriburutza Agiria" izeneko kontzeptuan dagokion zuzkidurak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari dagokionak 2019an emandako kopuruak dituzte, eta horietako bakoitzari gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

Berritasun nagusia da desagertzen dela hautesle ordainsariak ematea erabakitzen duten udalei egiten zaien ordainketaren izaera konpentsatzailea eta finalista; haren ordez, urteko ekarpen finko bat ezartzen da, Nafarroako udal guztiek jasoko dutena haien hautetsi kopuruaren arabera, ordainsariak jasotzea justifikatu beharrik gabe.

Ekarpen horren zenbatekoa kalkulatu da 2019an udalkideen gastuak konpentsatzeko erabilitako zenbatekoarekin, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

Beste alde batetik, montepioen defizita finantzatzeko prozedura errazten da, eta berariaz ezarri ezen, Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen Funtsean, transferentzia arrunten kontzeptuan, esleitutako kopuruak ordaintzean, baldin badaude udalen eta haien mugartean dauden kontzejuen artean izenpetutako hitzarmenak, entitate horientzako ordainketak izenpetutako hitzarmenean ezarri bezala egiten ahalko direla, bertan hala ezarrita baldin badago.

## I. KAPITULUA

### Zuzkidura orokorra eta eguneratzea

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek 2020. urterako arautzen ditu toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zuzkidura eta banaketa, transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuei dagokienez.

**2. artikulua.** Funtsaren zuzkidura 2020ko ekitaldirako.

2020ko ekitaldi ekonomikorako, toki ogasunek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zuzkidura, transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan, 236.356.409 eurokoa izanen da hasiera batean.

#### 3. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa, 2020ko ekitaldikoa, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 197.384.777 euro.
2. Beste laguntza batzuk:

a) Montepioen defizitaren finantzaketa: 6.400.000 euro.

b) Iruñeko Udaleri, "Hiriburutza agiria" delakoa-gatik: 26.036.907 euro.

c) Nafarroako udalei, udalkideen kopuruagatik: 6.100.000 euro.

d) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 434.725 euro.

#### 4. artikulua. Aurrekontu-izendapena.

1. Nafarroako 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan agertuko da zenbatekoa den toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren kontsignazioa.

2. Funtsean 2020. urterako Transferentzia arrunten kontzepturako kontsignatu den zenbatekoa 197.384.777 eurokoa da.

3. Funtsean 2020. urterako Iruñeko Udalarentzat, Hiriburutza Agiriaren kontzepturako, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat kontsignatutako zenbatekoa 2019an finkatutako bera da, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

4. 2020. urterako, funtsean udaletarako kontsignatu den zenbatekoa, udalkideen kopuruagatik eman beharrekoa, 2019an hautetsien ordainsarien konpentsazioaren kontzeptuan ezarritakoa da, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

5. 2020ko ekitaldian montepioen defizita finantzatzeko, funtsean kontsignatutako zenbatekoa honakoek osatuko dute:

a) Montepio Orokorren Finantzaketaren zenbatekoa, udalen artean banatzen dena populazioaz beste irizpide batzuen arabera: zenbateko bat ezarriko da, kontzeptu honetan udalen artean banatu beharreko defizitari soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kentzearen emaitza izanen dena (soldata-masa hori defizita finantzatzeko den ekitaldian montepioen araubidearen menpe dauden jarduneko langileei dagokiena da, mendekoak nahiz administrariak izan).

b) Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udaletako montepioetako klase pasiboen urteko kostu garbi orokorra finantzatzeko portzentajeak berdindak direla bermatzeko helburua duen finantzaketaren zenbatekoa.

## II. KAPITULUA

### Transferentzia arrunten esleipena

**5. artikulua.** Udalerrientzako banaketa formula.

2020ko ekitaldirako, udalerrientzako banaketa formula prozedura honen bidez lortzen da:

a) Lehen fasean, gastu premien indizea lortuko da gastu premia adierazten duten sei aldagaien konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu hori azaltzeko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: entitate bakoitzeko populazioa, hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera osoa eta populazio indizearen alderantzizkoa.

b) Bigarren fasean, udalerrien ahalmen fiskala eta ondarekoa adierazten duten bost aldagaien konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, aldagai haietako bakoitzaren eskubide likidatuek bost sarrera motetako eskubide likidatu guztiekiko duten garrantziaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: lurraren gaineko kontribuzioaren oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarenak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarenak eta herri-lurren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu premien indizeari kentzen zaio ahalmen fiskalaren indizea 0,3491 faktorearekin ponderatuta eta formula hau aterako da;

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Bertan:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzeko populazioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako populazio osoarekiko.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroako hiri azalera garbi osoarekiko. Planoaren arabera azalaren (azalera grafikoa) eta lurzati batura modura hartutako azalaren (azalera alfanumerikoa) arteko diferentzia da hiri azalera garbia.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztiekiko.

PPINM da udalerrri bakoitzeko etorkinen kopurua adierazten duen portzentajea, Nafarroako etorkinen kopuru osoarekiko.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekiko egiten duen portzentajeen koadroen batura, Nafarroa osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekiko.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoa adierazten duen portzentajea, Nafarroako azalera osoarekiko.

PCTU da udalerrri bakoitzaren hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitua adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoan tributu horren likidazio-oinarri doituen baturak egiten duenarekiko. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira koefiziente zuzentzaile baten bidez; koefiziente horrek balioak handitzen ditu merkatu balioekiko duten urruntasunaren arabera. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko landa-lurren likidazio-oinarri guztien baturarekiko.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuoten baturarekiko; betiere, nazio, lurralde nahiz udal esparruetako kuoten batura hartzen da oinarri-kuotatzat, udal errekarua kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osorako zerga honen eskubide likidatu guztiekiko.

PVCC da udal bakoitzean herri-lurren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako udalerrrien balio guztiekiko. Udal-mugaratean kontzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herri-lurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.

## **6. artikulua.** Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udal eta kontzejuen arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Populazioaren gaineko estatistikako azken datu ofizialak zer urtetakoak diren,

urte hori izanen da aldagai guztien erreferentziako urtea.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ukatu gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergako datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Lurralde Kohesiorako Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azken daturik berriena eguneratuko da, urteko ehuneko 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako "per capita" daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleriaren aldagaia oinarritzat hartuz.

**7. artikulua.** Katastroko balorazio txostenak gaurkotzea.

Udal bakoitzari 2020rako dagokion zenbatekoa banatzean, katastroko balioak gaurkotu gabe badituzte, edo indarreko legeriarekin bat udal-mugaratean aplikatu beharreko balorazio txostena berrikusteko prozesua hasi gabe badute, transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten zenbatekoa %10 murriztuko da.

Murrizketa horiek transferentzia arrunten funts orokorretik gainerako toki entitateei banatzen zaie-na gehituko dute.

**8. artikulua.** Udalentzako hasierako esleipena.

1. Udal mailako banaketa-indizea aterako da aurreko 5. artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz.

2. Udalerriren batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatu dira gainerako udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien batura 1 izan dadin.

3. Banaketa-indize hau kasuan kasuko ekitaldiko transferentzia arrunten zenbatekoaren gainean aplikatuko da, udalerrri bakoitzari hasieran dagokion diru-esleipena lortzeko.

**9. artikulua.** Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera udalerrri horiei esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, kontzejuen artean banatzeko.

Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalaren partaidetza bider

ehuneko 30 eginen da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerrriaren biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa. Udalerrriaren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

**10. artikulua.** Berme klausularen aplikazioa udal eta kontzejuetarako.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuz udalek eta kontzejuek jaso beharreko zenbatekoa ez da izanen, inola ere, batura honek egiten duen zenbatekoa baino txikiagoa: haietako bakoitzak 2019ko ekitaldian transferentzia arrunten funtsaren banaketan jasotakoak, gehituta, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainerako bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat, alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

2. Baldin eta funtseko partaidetza, udalerrri edo kontzeju bati hasieran esleitu zaiona transferentzia arrunten kontzeptuan, ez bada iristen aurreko apartatuan ezarritako zenbateko bermatura, hasiera batean esleitutako kopurua bermatutakotik gorakoa duten udalerriei eta kontzejuei behar diren kopuruak kenduko zaizkie, bakoitzari dagokion kopuru bermatutik gora lortu dutenaren proportzioan.

**11. artikulua.** Ordainketa.

1. Behin betiko onetsi ondoren 2020. urtean Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsaren banaketa, transferentzia arrunten kontzeptuan esleitutako kopuruak ordainduko dira bi alditan, otsaileko eta abuztuko lehen hamabostaldietan.

2. Lehen ordainketaren zenbatekoa aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren erdia adinakoa izanen da.

3. Bigarren ordainketa egin aurretik, urteko behin betiko diru-esleipena kalkulatu da, eta lehen ordainketaren eta jaso beharreko zenbateko osoaren arteko diferentzia ordainduko da.

4. Udalerrrien eta haien mugarteko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, hitzarmenean ezarrita egonez gero ordaintzeko modua, hala ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean toki entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa banaketa-formula aplikatuz kalkulatzea.

**12. artikulua.** Hiriburutza Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarengatik laguntzaren ordainketa.

Iruñeko Hiriaren Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren

tzako laguntzaren ordainketa aurreko artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusitako modu berean eginen dira.

**13. artikulua.** Nafarroako udalenzako ordainketa udalkideen kopuruagatik.

1. 2020. urterako, urteko ekarpen ez finalista bat ezartzen da, Nafarroako udal bakoitzak jasoko duena bere hautetsi kopuruaren arabera, legeria orokorarekin bat.

Hau izanen da ekarpen hori:

- A) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.669,07 euro.
- B) 5 zinegotzi dituzten udalak: 12.025,13 euro.
- C) 7 zinegotzi dituzten udalak: 17.684,11 euro.
- D) 9 zinegotzi dituzten udalak: 21.221,36 euro.
- E) 11 zinegotzi dituzten udalak: 33.953,72 euro.
- F) 13 zinegotzi dituzten udalak: 58.711,56 euro.
- G) 17 zinegotzi dituzten udalak: 89.836,03 euro.
- H) 21 zinegotzi dituzten udalak: 128.741,47 euro.
- I) 27 zinegotzi dituzten udalak: 215.747,46 euro.

2. Baldin eta soberakinik gertatzen bada udalkideen kopuruagatik ordainketak egiteko kontsignazioan, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinak montepioaren defizitari aurre egiteko finantzazioari gehituko zaizkie.

3. Baldin eta defizita gertatzen bada udalkideei kopuruagatik egin beharreko ordainketetarako kontsignazioan, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, modu proportzionalean murriztuko dira artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ekarpenak, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugarekin.

4. 2020ko maiatzaren 1a baino lehen, udalek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsetik hautetsien dedikazioaren kontzeptuan egindako ordainketak konpentsatzeko 2019an jaso dituzten ekarpenen zenbatekoa eta erabilera frogatzeko.

2020ko ekitaldian jaso beharreko zenbatekoa aldi bakar batean ordainduko da funtsaren bigarren zatiarekin batera. Zenbateko hori izanen da artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako zehaztapenei behar diren doikuntzak aplikatzearen emaitza, bai azken udal hauteskundearen ondorioz udalkideen kopuruan izandako aldaketek eragindakoak bai 2019ko ekitaldian esleitutako kopuruak baino txikiagoak diren gastu justifikazioek eragindakoak.

**14. artikulua.** Montepioen defizitaren finantzaketa.

Nafarroako udalei montepioen defizitagatik eman beharreko finantzaketa honela eginen da:

1. Montepio Orokorren defizita zehazteko organo eskudunak eginen du banaketa udalen artean, populazioaz beste irizpide batzuk kontuan hartuta.

Udal bakoitzari egotzitako defizitari (jardunean dituen menpeko langileei eta administrariei dago-kiena) soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kenduko zaio, udalak berak ordaindu beharrekoa, eta gainerakoa parte-hartzeen funtsaren kargura finantzatuko da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak abuztuan eginen du ordainketa, funtsaren bigarren zatiarekin batera.

2. Behin organo eskudunak defizita finkatu ondoren, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udalek beren montepioen finantzaketan lagunduko dute, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarritako portzentajeekin bat. Udal horietako batek, foru lege horretan ezarritako gehieneko kopuruak gainditzeagatik, gainerako entitateek baino finantzaketa portzentaje txikiagoa jaso behar badu, gainerako entitateek ere finantzaketa portzentaje txikiagoa jasoko dute, haien defizitaren finantzaketa baldintza berdinetan egiteko moduan.

Baldin eta, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinik gertatzen bada montepioen finantzaketarako 2020ko ekitaldiko kontsignazioan, soberakinak gehituko zaizkio transferentzia arrunten funts orokorrari.

Baldin eta, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, defizita gertatzen bada montepioen defizitaren finantzaketarako 2020ko ekitaldiko kontsignazioan, eta posible ez bada udalkideengatik egin beharreko ordainketarako aurrekontu kontsignazioaren krediturik erabiltzea hura banatu ondoren, modu proportzionalan murriztuko dira toki entitate bakoitzarentzako ekarpenekiko, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugaraino.

**Azken xedapenetako lehenengoa.** Foru lege honen indarraldia 2021. urtera luzatzea.

1. 2021eko urtarrilaren 1erako udal, kontzeju eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu-sarreretan –diru-sarrera horien guztizkoaren eta dagokien banaketaren urteko ehuneko finko baten bidez– parte hartzeko sistemak indarra hartu ez badu (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan jasota dago hori, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak emandako testuan), foru lege honen edukiaren eta erregulazioaren indarraldia 2021. urtera luzatuko da.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako indarraldiaren luzapen hori gertatuko balitz, 2021. urterako funtsaren zuzkidura foru lege honen 2. artikuluan 2020. urterako aurreikusitakoa izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko 2019ko ekainetik 2020ko ekainera bitarteko Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) eta beste bi puntu portzentual gehituta.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

**ERANSKINA**  
**Banaketa formulako aldagaiak**  
**eta aplikazio iturriak**

1. Udalergi bakoitzaren biztanleria. Estatistika-ko Institutu Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalergi bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzati baturak duen azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernu Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

5. Etorkinak. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa.

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatuak.

8. Hiri-lurren gaineko kontribuzio doituaren likidazio-oinarria. Udalergi bakoitzeko hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria, merkaturako balioei doitzeko koefizienteaz biderkatua. Bi horiek Nafarroako Gobernu Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak harturik, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

9. Udalergi bakoitzeko landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernu Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak harturik, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

10. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errenergua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoaren Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Lurralde Kohesiorako Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik lortzen da. Igortzen ez baditu, zentzespen bat aplikatuko da, foru lege honetako 6. artikuluko 2. apartatuan ezarritako irizpidearekin kalkulatuak.

12. Herri-lurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalergi bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastro-balioa, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da. Kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, ez dira sartzen kontzejuen titulartasuneko herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernu Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du, eta Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak hartzen ditu.

13. Montepioa. Udalerrietan jardunean dauden menpeko langileen eta administrarien soldata-masa langile horiek kontzeptu guztietan lortutako ordainsari gordin guztiek osatzen dute. Datu horiek Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Gizarte Prestazioen Zerbitzuak emanen ditu.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Legea.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko otsailaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Legea onetsi zuen:

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Legea

#### HITZAURREA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 7. artikulua Nafarroako sinbolo bereki gisa jasotzen ditu bandera eta armarrria. Ondoren, "Gorteen ereserkia" deitutakoa sinbolo bezala erantsi zen apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen bidez aldatutako Nafarroako sinboloak arautzen dituen maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legean.

Apirilaren 6ko 3/2017 Foru Legearen bidez 24/2003 Foru Legea indargabetu zen, baina Gorteen ereserkiari buruzko araubidea mantendu zen.

Halatan, foru lege honen xedea da sorturiko lege-hutsunea betetzea eta Nafarroako Foru Komunitatearen hiru sinbolo oinarritzkoen erabilerrari buruzko araubidea guztiz berreskuratzea, gure gizartearen bizitza ofizial eta arruntan agertuko direla sustatzeko. Horretarako, finkatzen dira sinbolo horien ezaugarri formalak, Nafarroako Foru Komunitateko agintariek sinbolo horiek erabiltzea, eraikin publikoetan duten kokalekua eta haien presentzia behartzen duten dokumentu eta egintzak, eta halaber arautzen da beste erakunde-sinbolo batzuekiko gorde beharreko lehentasun-hurrenkera.

Arauketa honen bidez ezartzen da Nafarroako sinbolo berekiak nola eta zer ezaugarriekin izanen diren herritarren bizitzaren parte eta toki gaile-

na izanen duten ekitaldi publikoetan eta solemnitate-inguruabar bereziak dituztenetan.

### I. KAPITULUA

#### Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitatearen sinboloak

Nafarroako Foru Komunitateak hauek ditu nor-tasun-sinbolo eskusiboak: Nafarroaren bandera, armarrria eta ereserkia.

**2. artikulua.** Nafarroaren sinboloen erabilera.

1. Nafarroako armarrriaren eta banderaren erabilera erreserbatuta utziko da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta foru erakundearen sinbolo edo logotipo nagusi eta eskusiboak izateko.

2. Debeku da Nafarroako armarrrian edo banderan edozein sinbolo, sigla edo logotipo erabiltzea.

3. Produktuen edo salerosketa-gaien jatorriaren adierazgarri gisa bandera eta armarrria erabili ahal izateko, bai eta alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo edonolako entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabili ahal izateko ere, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunaren administrazio-baimena beharko da.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira Nafarroako banderaren, armarrriaren eta ereserkiaren erabilera-baldintzak kirol-, kultura- eta bestelako ekitaldietan, zeinetan herritarrek Foru Komunitatea ordezkatzeko parte hartzen baitute.

**3. artikulua.** Babes juridikoko araubidea.

Nafarroaren sinboloek duten babes juridikoa Estatuko legeek Estatuaren sinboloei ematen dieten berbera da.

## II. KAPITULUA Nafarroako bandera

**4. artikulua.** Nafarroako banderaren deskribapena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 7.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako bandera ofiziala kolorez gorria da, Nafarroako armarrria du erdian, laukizuzen-forman eginiko ehunki baten gainean, zeinak luzera eta zabalera proportzional baina aldakorrak izanzen baititu.

**5. artikulua.** Nafarroako banderaren erabilera.

1. Foru Komunitateko herritar guztien eta bakoitzaren eskubide zibikoa da Nafarroako bandera paratuta egotea eraikinen kanpoaldean, eraikin horiek direnean foru erakundeen administrazio-egoitzenak eta zerbitzuenak, Foru Komunitateko administrazioarenak eta foru sektore publiko instituzionalarenak, bai eta toki administrazioa osatzen duten entitateenak, zeinek baitaukate haien ordezkaritza politikoa eta administratiboa. Nafarroako Gobernuak, udal agintariak eta gainerako foru erakundeek bermatu beharko dute lege honetan xedatua betetzen dela.

2. Nafarroako bandera lehentasuneko tokian paratuko da erakusgai, betiere Espainiakoari gailentasuna kendu gabe, honako hauen egoitza administratibo eta zerbitzu-erakin guztien kanpoaldean: foru erakundeak, Foru Komunitateko Administrazioa eta toki entitateak, eta, halaber, aipatu erakinen barruan, bertako agintarien bulego ofizialetan eta haietako gainerako eremu muntadunetan.

3. Udalek, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako sektore publiko instituzionaleko beste edozein erakundek beren bandera propioak erabiltzen dituztenean, Espainiako banderarekin batera erabiliko dituzte, foru lege honetan araututako moduan.

4. Nafarroako lehendakariak dolu-egun ofiziala dekretatu duenean baizik ez da paratuko Nafarroako bandera haga erdian edo armarrrian dolu-xingola duela, eta ezarritako epean betiere.

**6. artikulua.** Nafarroako banderaren lehentasuneko tokia.

Nafarroako bandera foru erakundeetako, Foru Komunitateko administrazioeko eta Sektore Publiko Instituzionaleko egoitza eta eraikinen kanpoaldean eta barrenaldean erabiltzen denean, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehentasuneko tokian paratuko da, betiere Espainiako banderari dagoen gailentasuna kaltetu gabe.

**7. artikulua.** Banderaren paratze-hurrenkera.

1. Nafarroako bandera, Espainiako banderarekin eta ez besterekin batera paratuta dagoenean, lehendakariaren edo bandera paratu duenaren ezker aldean jarriko da, eta eskuinaldean, ikusleentzat edo kalean haiei begira dagoenarentzat. Udaletako banderekin edo Nafarroako toki administrazioa osaturik bere bandera propioa darabilen beste edozein entitatearekin jartzen denean, Espainiakoaren eskuinaldean kokatuko da, bandera-kopurua bakoitia denean, eta haren ezker aldean, bikoitia denean.

Ez da zilegi Nafarroako bandera berdintasun-baldintzetan paratzea enpresen, merkataritza-marken, auzokide-elkarteen edo entitate pribatuen banderaren aldamenean.

2. Ikusgai jartzen den Nafarroako banderaren tamaina ezin izanzen da Espainiakoarena baino handiagoa izan, ez eta beste entitate batzuenarena baino txikiagoa ere, horien ondoan paratua agertzen denean.

**8. artikulua.** Nafarroako banderaren gorazara eta Nafarroako sinboloen sustapena.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanzen du Nafarroako bandera omentzeko ekitaldiak egin eta gizarte zibilak hura erabil dezan sustatzea, horretarako hartuko dituen neurrien bidez.

2. Halaber, zilegi izanzen du Nafarroako sinboloen ezagutza eta erabilera sustatzea azterlan eta ikerlanak eginez eta erakusketa, entzunaldi edo sariketarako deialdien bidez.

3. Nafarroako Gobernuak zilegi izanzen du Nafarroako banderaren agerpen bisuala sustatzea inguruabar historikoak edo Nafarroaren identitate politikoa islatzekoak dituztela irizten dien lekuetan.

## III. KAPITULUA Nafarroako armarrria

**9. artikulua.** Nafarroako armarrriaren deskribapena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako armarrria urrezko katez osaturik dago, hondo gorri gainean, esmeralda bat erdian, bere kate-mailazko zortzi besoen elkargune gisa, eta haien gainean errege-koroa, Nafarroako antzinako erreinuaren sinboloa.

Hori horrela delarik ere, Nafarroako Gobernuak zilegi izanzen du irudi korporatibo bezala Nafarroako armarrri ofizialaren logotipo bat hartzea, diseinu

grafiko soilagokoa eta garaian garaiko gustu estetikoetara eguneratua.

**10. artikulua.** Nafarroako armariaren erabilera publikoa.

Nafarroako armaria edo haren logotipoa, Nafarroako banderaren barrenean ez ezik, haue-  
tan ere egon beharko da:

a) Foru Komunitateko erakunde eta administra-  
zio publikoen egoitzak kokaturik dauden eraikine-  
tako agintari-bulegoak eta bilera-gelak.

b) Foru Komunitateko erakundeen, administra-  
zioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren  
ibilgailu-parkeko ibilgailuak.

c) Foru Komunitateko erakundeen, administra-  
zioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren  
ordezkari diren agintariak luzatutako edozein  
diploma, ziurtagiri edo titulu.

d) Foru Komunitateko erakundeetan, adminis-  
trazioan eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalen  
ofizialki erabiltzen diren agiri, inprimaki, zigilu eta  
menbreteak.

e) Foru Komunitateko erakundeen, administra-  
zioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren  
argitalpenak eta iragarki ofizialak.

f) Foru Komunitateko erakundeen, administra-  
zioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren  
ordezkari diren agintariak erabilitako bereizgarri  
ofizialak.

g) Erabilera ofizialeko zenbait toki edo objektu,  
haien ordezkartasun bereziagatik hala erabaki-  
tzen denean.

h) Nafarroako Gobernuak erregelamenduz  
ezartzen dituen gainerako kasuetan.

#### **IV. KAPITULUA** **Nafarroako ereserkia**

**11. artikulua.** Nafarroako ereserkia.

Nafarroako ereserkia "Gorteen ereserkia" deri-  
tzona da.

**12. artikulua.** Ekitaldi ofizialetan interpreta-  
tzea.

Nafarroako ereserkia Foru Komunitateko era-  
kundeek antolatzen dituzten ekitaldi ofizial publiko  
eta esanahi berezikoaren hasieran edo bukaeran  
interpretatu behar da.

**13. artikulua.** Bertsio ez-ofizialen erabileraren  
debekua.

Debeku da Nafarroako ereserkia erabiltzea  
haren esanahi handia gutxiesten duten ekitaldi,  
modu edo bertsioetan.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe gelditzen dira apirilaren 6ko  
3/2017 Foru Legea eta foru lege honetan ezarrita-  
koari aurka egiten dioten maila bereko edo  
txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregela-  
mendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari  
foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta  
betearazteko behar diren erregelamendu-mailako  
xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra har-  
tzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-  
an argitaratu eta biharamunean hartuko du inda-  
rra.

## **Foru Lege proposamena, lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko otsailaren 20an, erabaki du aintzat ez hartzea lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2020ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Foru Lege proposamena, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak.**

### *OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko otsailaren 20an, erabaki du aintzat ez hartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko Foru Lege proposamena, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak. Foru lege proposamena 2020ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko otsailaren 24an egindako bileran, onetsi zuen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen lege proposamena, Kongresuko Mahaira bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Aipatu lege proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Hauteskuendean Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua 2. apartatuak hauteskunde-gastuaren muga arautzen du, halako moduan non muga hori izanen baita “alderdi, federazio, koalizio edo elkarre bakoitzak bere zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena”.

Jarraian, 2. apartatu horretan arautzen da probintzia-osagarria, barruti bakar batean aurkezten diren formazio politiko txikiek balia ezin dezaketena. Muga horren aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoak ez dira inondik ere aski hauteskunde-kanpaina bat egiteko –Kontuen Auzitegiak berak 2015eko Tokiko Hauteskuendean Kontabilitatearen Fiskalizazio-txostenean adierazi duen

legez–; halatan, zenbateko horiek, batzuetan, txikiagoak izan ohi dira kasuan kasuko toki korporazioan ordezkariak lortuz gero formazio politikoek hauteskunde-gastuengatik lor litzaketan dirulaguntzak baino. Horri gehitu behar zaizkio gehiegizko hauteskunde-gastuak izan ditzakeen ondorioak; izan ere, arau-hauste zehagarri gisa tipifikaturik ageri da Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan.

Horren egungo testuan, % 10 baino gehiagoko gaitxerak gutxienez ere 50.000 euroko zehapena ekar dezake. Egungo araubideak dakarren egoera zuzentzeko, beharrezkoa izanen litzateke bermatzea hauteskunde-gastuaren mugak ahalbidetu egiten duela gutxieneko hauteskunde-kanpaina bat egitea.

Bestalde, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren –b letran– apartatuetan arau-hauste oso larri, larri eta arin gisa tipifikatzen dira, hurrenez hurren, alderdi politikoek Hauteskuendean Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan ezarritako dauden hauteskunde-gastuaren mugak gaitxerak, gaitxitutako ehunekoaren arabera. 17. bis artikulua, berriz, arau-hauste horiei dagozkien zehapenak ezartzen ditu, halako moduan non kasu guztietan gutxieneko zehapena bat ezartzen baita, 50.000, 25.000 edo 5.000 eurokoa, gaitxerak arau-hauste oso larria, larria edo arina izatearen arabera, nahiz eta hauteskunde-gastuaren muga gaitxerari buruz hasiera batez ezartzen den zehapena izan hauteskunde-gastuaren mugaren gaitxeraren halako bitik halako bostera bitartekoa.

Kontuen Auzitegiak izapidetutako zehapen-prozedurekin azkenaldi honetan izandako esperientziak agerian uzten du ezen, herri bakar

batean lehiatzen diren formazio politiko txikien kasuan, gaindikin oso txiki batek 50.000 euroko zehapen neurrigabea ekar dezakeela, aplikatzekoa zaien hauteskunde-gasturako mugaren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da aldatzea bai Hauteskundearen Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua bai Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua, azken horren kasuan kenduz ezarri beharreko gutxieneko zehapena.

Ekidite aldera hauteskunde-gastuaren mugari buruzko egungo araudiaren ondorioz apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politiko txikiei zehapen-espeditente berriak ireki eta zehapen neurrigabeak ezar dakizkien, proposatzen da aldi baterako xedapen bat sartzea, halako moduan non lege honetan ezarritako aldaketak aplikatzen ahal izanen baitzaizkie alderdi politiko horiei.

#### **1. artikulua.**

Hauteskundearen Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«2. Udal-hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta bider 0,22 euro, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan.

Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetan gutxienez ere hartako udalen 100eko 25ean aurkezten direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko».

#### **2. artikulua.**

1. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua lehen apartatuaren azken paragrafoaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“a) apartatuan aurreikusitako zehapenak ez dira inolaz ere izanen berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoak”.

2. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua bigarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) 17. artikulua bigarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinaren halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

3. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua hirugarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«b) 17. artikulua hirugarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinaren halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena».

#### **Xedapen iragankor bakarra.**

Lege honetan jasotzen diren aldaketak aplikatuko zaizkie apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politikoei.

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**1/2020 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak honako legegintzako foru dekretu honen ziurtagiria igorri du: "1/2020 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia".

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Adieraztea 1/2020 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela (10-20/DFL-00001).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**1/2020 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia**

**ZIOEN AZALPENEA**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak aurtzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkideko aldaketa batek behartzen badu Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren

xedapen horiei “tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie baldin aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio badira, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Presako neurriei buruzko otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eranstean baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau, sektore baztuetako kontratazio publikoari, aseguru pribatuei, plan eta pentsio-funtsei, tributu eremuari eta auzi fiskalei buruzkoak, honako hauek aldatu ditu: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena. Helburua da barneko tributazio ordenamendura eranstea Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1910 (EB) Zuzentaraua, honako hauek aldatzen dituen: 2006/112/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren abenduaren 4ko 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamendua, 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatzen zuena.

Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1910 (EB) Zuzentarau horrek neurriak hartzen ditu modu harmonizatuan aplikatzearen tributu tratamendu bera mugaz haraindiko merkataritza operazio jakin batzuei, tributu administrazioek interpretazio dibergentea ematen zietenelako.

Alde batetik, ondasunak kontsignan saltzeko akordioak arautzen ditu, hau da, enpresaburu edo profesionalen artean egiten direnak salgaiak mugaz haraindi saltzeko, zeinetan enpresaburu batek (hornitzailea) ondasunak bidaltzen baititu Europar Batasuneko estatu kide batetik bestera, Batasunaren barnean betiere, helmugako estatu kidean biltegira daitezen, beste enpresaburu edo profesional baten eskura (bezeroa), eta hark eskura ditzan ailegatu ondoan.

Egun, operazio horrek, ondasunen abiapuntua den estatu kidean, ondasun-transferentzia bat sortzen du, Europar Batasunaren barneko ondasun-entrega batekin parekatzen dena, eta, ondasunen helmuga den estatu kidean, berriz, Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapenarekin parekatutako operazio bat. Bi kasuetan hornitzailea da operazioen egilea. Gero, bezeroak ondasuna eskuratzen duenean, hornitzaileak barneko entrega bat eginen du helmugako estatu kidean, zeinetan aplikatu beharko baita subjektu pasiboaren inbertsioaren araua, baina bezeroa da subjektu pasiboa. Operazioaren oraingo tratamenduari, gainera, hornitzaileak identifikaturik egon behar

du, BEZaren ondorioetarako, salgaiaren helmugako estatu kidean.

Halako operazioak errazte aldera eta Europar Batasunaren barneko merkataritzako operadoreen karga administratiboak murrizte aldera, erregulazio berriak ezartzen du ezen, ondasunak entregatzen direnean ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, Europar Batasunaren barneko entrega salbuetsi bat eginen duela hornitzaileak abiapuntuko estatu kidean, eta, bestalde, Europar Batasunaren barneko eskurapen bat egiten duela bezeroak ondasunen helmugako estatu kidean, zenbait baldintza betetzen badira.

Tratamendu sinplifikatu hori aplikatzeko, bezeroak urtebeteko epean eskuratu beharko ditu ondasunak, helmugako estatu kidera ailegatzen direnetik hasita. Eskurapen data da kontuan hartu beharrekoa Europar Batasunaren barneko kasuan kasuko operazioaren sortzapenerako.

Kasu guztietan, enpresaburuek edo profesionalak aukera izanen dute sinplifikazioari ez helitzeko, hura aplikatzeko aurreikusitako baldintzak ez betez.

Orobat, aipatutako zuzentarauak aldaketa egiten du Europar Batasunaren barneko ondasun-entregan salbuespena aplikatzeko baldintzetan, helburua izanik iruzurra murriztea Europar Batasunaren barneko ondasun-operazioetan, beharrezkoagoa izanen baita halako operazioak egiten dituzten operadoreek indarreko IFZ-BEZ eguneratua izatea nahitaez eta informazioa emateko betebeharra konplitzea.

Ondasunak kontsignan saltzeko akordio horien ondoriozko sinplifikazio neurriak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, foru legeak ezartzen du horietan parte hartzen duten enpresaburuek eta profesionalak nahitaezkoa dutela halako operazioei buruzko erregistro liburu berariazkoak eramatea. Operazioak erregistro berrietan eramatea eta jasotzea ez da betebeharr formal hutsa, funtsezko betebeharra baizik, beharrezkoa izanen baita hura konplitzea sinplifikazioa aplikatu ahal izateko. Ildo horretan, 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamendua 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatu du, erregistro liburu berri horien edukia modu harmonizatuan erregulatzeko.

Bestalde, zergari buruzko zuzentarauak ezarri duenez, saltzaile batek ondasunak igorri edo garraiatzen dituen beste estatu kide batera ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, Europar Batasunaren barneko operazioen aitortpen laburtua aurkeztu behar du, 349 ereduaren bidez.



Horrenbestez, beharrezkoa da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzea, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena, ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten ondoriozko operazioak eta salgaien joan-etorriak erregulatzeko, zergaren subjektu pasiboek Europar Batasunaren barneko operazio batzuetarako eraman behar dituzten liburuaren barnean, eta, orobat, Europar Batasunaren barneko operazioen aitortpen laburtua erregulatzeko, hura aurkeztu behar dutenen artean sar daitezzen aipatutako akordioaren esparruan ondasunak beste estatu kide batera igortzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, baita aitortpenaren edukia ere.

Alabaina, 2021eko urtarrilaren 1era arte atzeratzen da informazioa berehala eman behar duten enpresaburuak edo profesionalak Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eraman beharra Europar Batasunaren barneko operazio jakin batzuen erregistro liburu berria, ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren ondoriozkoa, errazago izan dadin hura betetzea eta aplikaziorako behar den garapen teknikoa gauzatzeko.

Bestalde, adierazi bezala, 2018/1910 (EB) Zuzentarauak ezartzen du funtsezko baldintza dela, Europar Batasunaren barneko ondasun-entregan salbuespena aplikatzeko, horren enpresaburuak edo profesionalak operazio hori jasotzea Europar Batasunaren barneko operazioen aitortpen laburtuan, 349 ereduaren bidez. Ildo horretan, baldintza hori bete dadin operazioaren datatik hurbil, eta kontuan izanik subjektu pasiboek gutxitan erabiltzen dutela, kendu egiten da aitortpen laburtu hori urtean behin aurkezteko aukera.

Antzeko helburua izanik, Europar Batasunaren barneko salbuespenak aplikatzeko esparruan, 2018/1912 (EB) Exekuzio Erregelamendua zenbait presuntzio sartu ditu, Europar Batasunaren barneko garraioaren frogarazkoak, 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamenduan, lege esparru harmonizatu bat bermatzeko eta halako operazioen ondoriozko iruzurraren kontrola areagotzeko. Europar Batasunaren barneko ondasun-entregan salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izanik, ezinbestean, ondasunak beste estatu kide batera igortzea edo garraiatzea, harmonizatutako zuzentarauaren exekuzio erregelamendua, zeina zuzenean aplikatu beharrezkoa baita, ezarri eta zehazten du zer kasutan kontsideratu behar den ondasunak egiatan igorri edo garraiatu diren estatu kide batetik bestera. Presuntzioen sistema harmonizatu horrek, ezertan galarazi gabe kontrako

frogak onar daitezkeela, helburu du errazago frogatzea salbuespena aplikatzeko baldintzak.

Horrenbestez, nola aldatu diren Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena, beharrezkoa da Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea, honako hauek aldatzeko: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena. Xedea da, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplikatzea Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta bi mila eta hogeiko otsailaren hemeretziaren egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

**Lehenengo artikulua.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Ondorioak 2020ko martxoaren 1etik aurrera izanik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen artikulua hauek honelako idazketa izanen dute:

Bat. 9.3 artikulua, lehenengo paragrafoa.

“3. Subjektu pasibo batek bere enpresako ondasun gorpuzdun bat Europa Batasuneko beste estatu kide batera transferitzea, estatu horretan dituen beharrei afektatzeko. Ez dira halakotzat joko ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan eginiko transferentziak, 9.bis artikuluan aurreikusi bezala”.

Bj. 9.bis artikulua gehitzea.

“9.bis artikulua. Ondasunak kontsignan saltzeko akordioa.

1. Foru lege honetan ezarritako ondorioetarako, honako baldintza hauek betetzen dituen izanen da ondasunak kontsignan saltzeko akordioa:

a) Saltzaileak, edo hirugarren batek haren izean eta kontura, beste estatu kide batera igortzea edo garraiatzea ondasunak, beste enpresaburu edo profesional gaitu batek eskura ditzen ondasunak ailegatu ondoren, bi alderdien artean alde zuzen izandako akordio bati jarraituz.

b) Ondasunak igorri edo garraiatzen dituen saltzaileak ez izatea bere jardura ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat ondasu-

nen igorpenaren edo garraioaren helmugako estatu kidean.

c) Ondasunak eskuratu behar dituen enpresaburua edo profesionala identifikatuta egotea, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, igorpenaren edo garraioaren helmugako estatu kidean, eta saltzaileak jakitea, igorpena edo garraioa hasten denean, zein den identifikazio fiskaleko zenbaki hori, baita izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa ere.

d) Saltzaileak ondasun horien igorpena jasotzea erregelamenduz ezartzen den erregistro liburuan eta 109.1.5 artikuluan aipatzen den aitorten laburtuan, erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Baldin eta, ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan ondasunak helmugako estatu kidera ailegatu eta hamabi hilabeteko epearen barnean, 1.c) edo 3.b).1 apartatuetan aipatutako enpresaburuak edo profesionalak eskuratzen badu ondasunak erabiltzeko ahala, ulertuko da honako hau egiten dela zergaren aplikazio eremuan, kasua zein den:

a) Saltzaileak eginiko ondasun-entrega bat, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erki-dea arautzen duen Legearen 68.Bi.1.A) artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoenetako bat, zeinari aplikatzen ahal baitzaio foru lege honen 22. artikuluko salbuespena, edo,

b) Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapen bat, foru lege honen 15.1.b) artikuluan aurreikusitakoenetako bat, zeina eskuratzen duen enpresaburuak edo profesionalak egina baita.

3.a) 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun-transferentzia egin dela ulertzeko, ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan, 2. apartatuan aurreikusitako hamabi hilabeteko epearen barnean, ez da bete behar 1. apartatuan ezarritako baldintzetako edozein, kasu hauetan bereziki:

1. Ondasunak hasiera batean jaso behar zituen enpresaburuak edo profesionalak eskuratu ez dituenean.

2. Ondasunak igorri edo garraiatu direnean ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren arabera hasiera batean helmugakoa zen estatu kidez bestelako batera.

3. Ondasunak suntsitu, galdu edo lapurtzen direnean.

b) Ulertuko da 1. apartatuko baldintzak bete direla baldin eta aipatutako epean:

1. 1.c) apartatuan aipaturikoa ordeztzen duen enpresaburu edo profesional batek eskuratzen

baditu ondasunak, letra horretako baldintzak bete-ta.

2. Ondasunak erabiltzeko ahala eskualdatu ez bada eta horiek, zer estatu kideatetik igorri edo garraiatu ziren, hara itzultzen badira.

3. Saltzaileak erregelamenduz ezartzen den erregistro liburuan sartu baditu letra honetako 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako inguruabarrak.

4. Ulertuko da ezen ondasunak helmugako estatu kidera ailegatu zirenetik 12 hilabeteko epea bukatu eta biharamunean eskualdatu direla ondasunak 9.3 artikuluan adierazten den moduan, ondasunak kontsignan saltzeko akordioaren esparruan eta 1. apartatuko baldintzak beteta, 1.c) edo 3.b).1 apartatuetan aipatutako enpresaburuak edo profesionalak eskuratu ez duenean ondasunak erabiltzeko ahala.

5. Ondasunak kontsignan saltzeko akordioa izenpetzen duten enpresaburuek edo profesionalak eta ondasunak hasiera batean jaso behar zituen ordeztzen dutenek erregistro liburu bat eraman behar dute halako operazioetarako, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan”.

#### Hiru. 15.1 artikulua.

“1. Honako hau hartuko da Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapentzat:

a) Ondasun higitari gorpuzdunak erabiltzeko ahala eskuratzea, zergaren aplikazio lurraldera igorri edo garraiatzen dizkionean eskuratzaileari, beste estatu kide batetik, eskualdatzaileak, eskuratzaileak berak edo hirugarren batek, aurrekoetako edozeinen izenean eta kontura.

b) Ondasun higitari gorpuzdunak erabiltzeko ahala eskuratzea ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, 9.bis.2 artikuluan aurreikusitako bezala”.

#### Lau. 22.1 artikulua eta 4. apartatua gehitzea.

“1. 8. artikuluan zehaztutako ondasun-entregak, beste estatu kide batera igorri edo garraiatzen dituztenak saltzaileak, eskuratzaileak edo hirugarren batek, aurrekoetako edozeinen izenean eta kontura, baldin eta gisa horretan aritzen ez den enpresaburu edo profesional edo pertsona juridiko bat bada eskuratzailea, identifikazio zenbaki bat badu balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, beste estatu kide batek emana, eta identifikazio fiskaleko zenbaki hori saltzaileari jakinarazi badio.

Salbuespen hori aplikatzeko, saltzaileak operazio horiek sartu beharko ditu Europar Batasunaren barneko operazioen aitorten laburtuan (109.1.5

artikuluan aurreikusia), erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

Apartatu honetako salbuespena ez da aplikatuko ondasun-entrega batean Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapena lotuta ez dagoenean helmugako estatu kideko zergari, 14.1 eta 2 artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Salbuespen hori ez da aplikatuko, halaber, erabilitako ondasunen, arte-gaien, antzinako gauzen eta bilduma-gauzen araubide bereziari lotutako ondasun-entregetan (VIII. tituluko IV. kapituluaren arautua)".

"4. Ondasun-entregak, ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egiten direnak, 9.bis.2 artikuluan aurreikusi bezala".

Bost. 24.1.8 artikulua.

"8. 22. artikuluan jasotzen diren ondasun-entregetan, apartatu honen 7. puntuan aipatutako ez bestelakoak badira, zerga sortuko da honako hauek gertatu eta hurrengo hilabetearen 15ean:

a) Ondasunak eskuratzaileari igorri edo garraiatzen hastea.

b) Ondasunak eskuratzailearen eskura jartzea, 9.bis.2 artikuluan zehaztutako baldintzetan entregatzen direnean ondasunak.

a) eta b) letren ondorioetarako, egun hori baino lehenago luzatu bada operazio horien faktura, faktura luzatu zen egunean sortuko da zerga.

c) 9.bis.3 artikuluan aipatzen diren baldintzak ez betetzean.

d) 9.bis.4 artikuluan zehazten den 12 hilabete-ko epea bukatu eta biharamunean".

Sei. 31.1.2.a).c') artikulua.

"c') 18. artikuluko 1. eta 2. puntuetan edo 22. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzeagatik zergatik salbuetsita dagoen ondasun-entrega bat denean, edo azken artikuluko horretan aipatutako ondasun-entrega bat denean, zergari lotuak badaude eta ez salbuetsiak".

Zazpi. 109.1.5 artikulua.

"5. Aldian behin, edo Administrazioak eskatuta, informazioa aurkeztea hirugarrenekin eginiko operazio ekonomikoetarako buruz, eta, bereziki, Europar Batasunaren barneko operazioen aitortpen laburtu bat".

**Bigarren artikulua.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Honela idatzita geldituko dira martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio

Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduen manu hauek:

Bat. 13. artikuluko 2., 3. eta 4.1 apartatuak. 2020ko otsailaren 6tik aurrerako ondorioekin.

"2. Ondasunak helmugako estatu kidera igorri edo garraiatu direla justifikatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliko da, eta, bereziki, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamenduen 45.bis artikuluan kasuan-kasuan ezarritakoak, segun saltzaileak egin duen, erosleak egin duen edo horietako edozeinen kontura izan den (Erregelamendu horren bidez, Balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentarauaren aplikazio xedepena ezarri ziren).

3. Eskuratzaile izaera frogatzeko, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia erabiliko da, saltzaileak ematen duena. Horretarako, zerga arloan eskuduna den departamentuari eska dakiok egiatza dezala EEEOko edozein estatu kideko operazio horien hartzaileei emaniko identifikazio fiskaleko zenbakia".

"1. Ondasunak igorri edo garraiatzea helmugako estatu kidera, 2. apartatuko baldintza berberetan".

Bi. 57. artikulua, 1. apartatua, 3. puntua eransita, eta 2. eta 3. apartatuak. 2020ko martxoaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"3. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio bateko ondasunak igorri edo jasotzea (Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis artikuluan aipatutakoa)".

"2. Aipaturiko erregistro liburuan, datu hauek jaso behar dira:

A) 1. apartatuko 1. eta 2. puntuetako operazioei dagokienez:

1. Operazioa eta haren data.

2. Operazioaren xedeko ondasunen deskribzioa, eskuratze faktura edo jabetza titulua adierazita, kasua bada.

3. Beste faktura edo agiri batzuk, kasuan kasuko operazioei buruzkoak.

4. Hartzailearen edo igorlearen identifikazioa, honako hau adierazita: identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, sozietatearen izena eta helbidea.

5. Ondasunen jatorriko edo helmugako estatu kidea.

6. Zer epe finkatu den, kasua bada, aipaturako operazioak egiteko.

B) 1.3 apartatuko operazioei dagokienez:

a) Saltzaileak datu hauek jaso behar ditu:

1. Zer estatu kidezik igorri edo garraiatu diren ondasunak eta zer egunetan igorri edo garraiatu diren ondasunak.

2. Ondasunen helmugako enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, ondasunak zer estatu kidegara igorri edo garraiatzen diren, harek emandakoa.

3. Zer estatu kidegara igorri edo garraiatzen diren ondasunak, ondasunen gordailuzainaren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, hura ez denean 2. puntuan aipaturiko enpresaburu edo profesionala, zer helbidetan biltegitatu diren ondasunak ailegatatukoan, eta zer egunetan ailegatu diren ondasunak biltegitara.

4. Biltegitara ailegatu diren ondasunen balioa, deskripzioa eta kopurua.

5. Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis.3.b).1 artikuluan aipatzen den enpresaburuak edo profesionalak ordeztzen duenean hasiera batean ondasunak jaso behar zituen enpresaburu edo profesionala, haren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

6. Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis.2.a) artikuluan zehazturiko baldintzetan entregatu diren ondasunen deskripzioa, zerga-oinarria (Zergari buruzko Foru Legearen 26. eta 27. artikuluen arabera), kopurua eta unitateko prezioa, entregaren data eta enpresaburu edo profesional eskuratzaileraren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

7. Zergari buruzko Foru Legearen 9.Bis.3.a) artikuluan zehazturiko baldintzetan transferitutako ondasunen deskripzioa, zerga-oinarria (Zergari buruzko Foru Legearen 26. eta 27. artikuluen arabera), kopurua eta unitateko prezioa, zer egunetakoak diren ondasun-transferentzia hori ekarri zuten baldintzak eta zergatik egin den transferentzia.

8. Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis.3.b).2 artikuluan zehazturiko baldintzetan itzulitako ondasunen deskripzioa, kopurua eta balioa, eta zer egunetan itzuli diren.

b) Datu hauek jaso behar dituzte ondasunen helmugako enpresaburuak edo profesionalak eta hura ordeztzen dutenek:

1. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasunak eskualdatzen dituen saltzailearen identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Haren esku jartzeko igorritako ondasunen deskripzioa eta kopurua.

3. Zer egunetan ailegatu diren biltegitara haren esku jartzeko igorritako ondasunak.

4. Eskuratutako ondasunen deskripzioa, zerga-oinarria (Zergari buruzko Foru Legearen 26. eta 27. artikuluen arabera), kopurua eta unitateko prezioa, eta zer egunetako den Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapena, Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis.2.b) artikuluan aurreikusten dena.

5. Saltzaileak biltegitik ateratzen dituen eta bere eskura egoteari uzten dioten ondasunen deskripzioa eta kopurua, eta zer egunetan ateratzen diren.

6. Suntsitutako edo biltegitik desagertutako ondasunen deskripzioa eta kopurua, eta zer egunetan gertatu den ondasunen suntsipena, galera edo lapurreta, edo zer egunetan jabetu den horretaz.

Nolanahi ere, enpresaburu edo profesional horrek 1., 2. eta 4. puntuetako datuak jaso behar ditu, soilik, hura ez den enpresaburu edo profesional bati igorri edo garraiatzen zaizkionean ondasunak, gero biltegitartzeko.

3. 53.6 artikuluan aipaturako pertsona eta entitateen kasuan, erregistro liburu hori Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eraman behar da, bertan idatzi beharreko operazio bakoitzaren informazio zehatza elektronikoki emanez.

Tributu arloan eskuduna den departamentuaren titularrak zehaztuko du, foru agindu bidez, nola identifikatu erregistro horiek”.

Hiru. 68. artikulua.

2020ko martxoaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“68. artikulua. Aitorpen laburtua aurkeztu beharra.

1. Ondoren zehazten diren operazioetako edozein egiten duten enpresaburuak edo profesionalak (izaera hori Zergari buruzko Foru Legearen 5.4 artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratu dutenean ere) nahitaez aurkeztu behar dute aitorpen laburtua:

1. Beste estatu kide baterako diren ondasun-entregak, baldin eta salbuetsita badaude Zergari buruzko Foru Legearen 22. artikuluan 1., 2., 3. eta 4. apartatueta xedatutakoa betez.

Operazio horien artean sartuko dira Zergari buruzko Foru Legearen 9.3 artikuluan jasotako ondasunen transferentziak eta, bereziki, geroko ondasun-entregak, haien inportazioa salbuetsia egon bazen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 27.12 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Honako hauek ez dira zenbaki honetan aipatutako ondasun-entregatzat hartuko:

a) Garraibide berriak xede dituztenak, baldin Zergari buruzko Foru Legearen 5.1.e) artikuluan jasotako pertsonen noizbehinka eginak badira.

b) Zergaren subjektu pasiboek egiten dizkietanak Europar Batasuneko beste edozein estatutan zerga horren ondorioetarako identifikazio zenbakirik ez duten hartzaileei.

2. Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapenak, baldin zergaren aplikazio lurraldean horren ondorioetarako identifikatu diren pertsonen edo entitateek eginak badira.

Operazio horien artean, beste estatu kide batek egindako ondasun-transferentziak sartuko dira, Zergari buruzko Foru Legearen 16.2 artikuluan aipatutakoak badira, eta, bereziki, Batasunaren barneko ondasun-eskurapenak, ondasunak beste estatu kide batetik inportatu badira, inportazioa zerga ordaintzetik salbuetsita egon denean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautu duen Legearen 27.12 artikuluan ezarritako baldintzen antzekoetan.

3. Zerbitzuak Batasunaren barnean egitea.

Erregelamendu honen ondorioetarako, ulertuko da Batasunaren barneko zerbitzuak egiten direla baldintza hauek betetzen direnean:

a) Aplikatu beharreko lokalizazio arauekin bat etorritik, ulertzea zergaren aplikazio lurraldean egiten ez direla.

b) Beste estatu kide batean zergari lotuta egoitea, eta ordaintzetik salbuetsita ez.

c) Hartzailea enpresaburua edo profesionala izatea eta gisa horretan aritzea, eta, horretarako, estatu kide horretan edukitzea jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra, edo, bestela, helbidea edo ohiko bizilekua; edo hartzaile hori pertsona juridikoa izatea, enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez dena baina

estatu kide horrek emaniko identifikazio zenbaki bat duena zergaren ondorioetarako.

d) Subjektu pasiboa hartzailea izatea.

4. Europar Batasunaren barneko zerbitzu-eskurapenak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, Europar Batasunaren barneko zerbitzu-eskurapenak izanen dira enpresaburu edo profesional batek ematen dituenak eta zergaren aplikazio lurraldean zergari lotuta daudenak, horretatik salbuetsita egon gabe. Betiere, Batasunean egon behar du, baina zergaren aplikazio lurraldetik kanpo, jarduera ekonomikoaren egoitzak edo zerbitzuak emateko establezimendu iraunkorrak edo, bestela, enpresaburuaren edo profesionalaren helbideak edo ohiko bizilekuak.

5. Europar Batasunaren barneko ondasun-eskurapenen hurrengo entregak (Zergari buruzko Foru Legearen 23.3 artikuluan aipatzen direnak), beste estatu kide batean eginak badira Espainiako Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio zenbaki baten bidez balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Saltzailea ere beharturik egonen da aitorten laburtua aurkeztera, ondasunak beste estatu kide batera igorri edo garraiatzen baditu ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, zeina Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis artikuluan aipatzen baita”.

Lau. 69. artikulua, 1. apartatua, 4. puntua eranstea, eta 2. eta 3. apartatuak.

2020ko martxoaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“4. Ondasunak igortzen direnean ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, zeina Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis artikuluan aipatzen baita, saltzaileak honako hau jaso behar du:

a) Ondasunak jaso behar dituen enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, ondasunak zer estatu kidetara igorri edo garraiatzen diren, harek emandakoa.

b) Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis.3.b).1 artikuluan aipatzen den enpresaburuak edo profesionalak ordeztzen duenean, ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, hasiera batean ondasunak jaso behar zituen enpresaburu edo profesionala, haren identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

c) Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan beste estatu kide batera igorri edo garraiatutako ondasunen baliorako hasiera batean kalkulaturako zenbatekoa”.

“2. Aitorpen laburtuan jasotako datuak zuzendu eginen dira akatsen bat egiten denean edo Zergari buruzko Foru Legearen 28. artikuluan ezarritako kasuren baten ondorioz aldaketaren bat gertatzen bada.

1.4 apartatuan aurreikusitako kasuan, saltzaileak eman behar du aurkeztutako informazioaren edozein aldaketaren berri.

3. Sortzapena zer aitorpen alditakoa den, hari dagokion aitorpen laburtuan jaso behar dira operazioak.

a) 1.4 apartatuaren kasuan, honako honi dagokion aitorpen laburtuan jasoko da aipaturako informazioa:

1. Ondasunak igorri edo garraiatzearen datari dagokion aitorpen aldiari, 1.4.a) apartatuan aurreikusitako kasuan;

2. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasunak hasiera batean jaso behar zituen enpresaburua edo profesionala ordeztzen duenean enpresaburu edo profesional batek, haren identifikazio datuak erregistro liburuan (57.2.B.a) artikulua) jasotzeko aitorpen aldiari, 1.4.b) apartatuan aurreikusitako kasuan.

b) 2. apartatuko lehenengo paragrafoan aipaturako zuzenketa kasuetan, ondasunen edo zerbi-

tzuen hartzaileari zer aitorpen alditan jakinarazten zaion, horri dagokion aitorpen laburtuan jasoko da zuzenketa hori”.

Bost. 70. artikuluko 4. eta 5. apartatuak kentzea. 2020ko martxoaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

**Xedapen iragankor bakarra.** Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eramatea Europar Batasunaren barneko zenbait operazioen erregistro liburua.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen da nahitaezkoa Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eramatea Europar Batasunaren barneko zenbait operazioen erregistro liburua, informazioa modu telematikoan emanez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 57.1.3 artikuluan aipatzen diren operazioei dagokienez soilik (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado.



